

OSTIRALA, 2024ko EKAINAREN 5a

*Sanferminak*  
**2024**

PASAI

• OARSO BIDASOKO •

**HITZA**

# Pasaiako hirugarrenak, zuri-gorriak

**Atzo hasi ziren Antxoko San Fermin  
festak, udalerriko udako hirugarrenak.  
Jai batzordeak astelehenera arteko  
askotariko egitaraua osatu du • 35-38**



**Goieko**

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 [www.goieko.com](http://www.goieko.com)

Gora  
San  
Fermin!

Aurtengo sanferminak are bereziagoak izango dira Antxoko Topagunearentzat. 10 urte bete berri ditu taldeak, eta urteurren bereziaren harira ospakizunik izango ez bada ere, egunotan behar bezala itzaliko dituzte hamar kandelak. Sanferminetarako azken



**Ezkerretik eskuinera, Ander Arrieta, Nora Gondat, Malen Etxeberria, Uxue Montalvo eta Lide Olalde. I.S.**

ukituekin ari zirela elkartu da taldekoekin HITZA, azken hamar urte hauen erreparatxo azkarra egiteko.

Topaguneko Uxue Montalvok dio «ilusio eta gogo» batetik sortu zutela orain dela hamar urte Topagunea, «herria astintzeko» gogo batetik heldu zela herri eragilea: «Gauzak egiteko gogo genuen, baina guretik egiteko, guk sinisten dugun modu horretan, gauzak modu euskaldunean, feministan eta parte hartzailean egiteko».

Eta hala izan da lehen egunetik, filosofia horri eutsiz eskaintza zabala

## Lehen eguneko ilusio eta gogo bera

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

egin diete haur, gazte eta helduei. San Tomas Eguneako festa, sanfermin txikiak, hitzaldiak, kirol

probak, kontzertuak, hausnarketarako saioak... Denetik eskaini diete antxotarrei hamarkada honetan. «Uste dugu Topaguneak aztarna utzi duela herrian, herriari borroka molde batzuk eman dizkiola, eta herriaren erdigunea hartu duela. Aldarrikatzeko leku bat da Topagunea, segurua».

Hasieratik herritarrak alboan izan dituztela nabarmendu nahi izan du Montalvok, eta zorionez, azkenaldian belaunaldi erreleboa ematen ari dela. Goiko irudian hori berretsi daiteke. «Herria zaintzen saiatzen gara, baina herriak asko zaintzen gaitu gu».

### Abesti eta guzti

Urteurren berezia biribiltzeko, abesti bat ondu du Topaguneak, 10 urteren ondoren, «zabor artean loratzen jarraitzen» dutela ospatu eta aldarrikatzeko. *Oasian Dantzan* izena du abestiak, eta jaietan hori ikasi eta haiekin batera txosnan dantzatzera deitu dituzte antxotarrak. «Oasian dantzan ariko gara denok!». Abestiaren mezuarekin egingdako kamisetak eta jertseak ere salgai jarri dituztela iragarri dute. ■

**MIMOS TABERNA**

afets arza lus  
andoni egaita  
nera ibarزابال  
oihana barbra

pasai antxoko  
18 sanferminak  
bertso saia

Gure Zumardia. 20110 Pasai Antxo. 943 24 90 23 @mimosantxo

## CIFP DON BOSCO LHII



**DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA**  
20100 Errenteria  
Tel.: 943 510 450  
donbosco@donbosco.eus  
www.donbosco.eus  
**PAPER KALEA, 1**  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 672 900



**Lanbide heziketa baina askoz gehiago**



## BEÑAT GARCIA KARTELAREN EGILEA

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

**H**irugarren aldiz, antxotar gaztearen kartelak iragarri ditu sanferminak. Hurrengo urtekoaren ideia prest du jada.

### Zure kartela eskuan duzula, zer sentitzen duzu?

Poz handia eta harrotasuna. Nire kartela herrian zehar ikustea ikaragarria da, Antxokoa izanik gainera. Ohore handia da, ametsa izan batia lehiaketa hau irabaztea. Lehen aldiz irabazi nuenean ez nuen imajinatzen zer-nolako poza sentituko nuen nire irudia kaleetan ikustean. Antxotarrek gustuko izatea zen nire helburua, baina bereziki beraiena senti dezatela.

### Hiru aldiz irabazi duzu jada kartel lehiaketa, oso gazte gainera.

14 urterekin aurkeztu nintzen lehen aldiz. 17 urterekin irabazi nuen lehenengo, bigarrena 19rekin eta hirugarrena orain, 24rekin. Beti aritu naiz diseinuak egiten, txikitatik asko gustatu izan zait marraztea, beti izan dut grina hori. Ikasketak hasi nituen, baina utzi egin nituen, *hobby* bezala ikusten baitut hau. Aitortu behar dut lehia handia dagoela urtero, diseinu oso-oso politak egiten dituztela. Herri txikia bada ere, artista oso onak daude Antxon.

### Zer islatu nahi izan duzu irudiarekin? Sanferminak bere horretan islatzen



I. Saiz

## «Antxotarrek kartela beraiena senti dezatela nahi dut»

saiatu naiz. Alpagata bat ikus daiteke, sanferminetako sinbolo handienetako bat. Alpagata hauen lokarriekin testua egin dut. Oso gustura nago lanarekin, eta badirudi jendeare ere gustatu zaio. Bide batez, Topagunea eta Papineko Gazteria eskertu nahi ditut egiten duten lanagatik, baita Leundako Jokin eta Mimoseko Agus eta Rafa ere.

### 2025ean aurkezteko asmorik?

Ez dakit hemen egongo naizen, abuztuan Abu Dhabira bainoa lanera. Ziur aski 18 hilabete pasako ditut han, eta beraz, ez dakit hemen izango ote naizen. Urruti egon arren, aurkezteko asmoa dut, eta ideia dagoeneko buruan dut. Urrutitik bada ere, nire aletxoak jartzen saiatuko naiz. ■



**www.molde.eus**  
LANERAKO BABESA  
Zure segurtasuna 15 urtean bermatzen

Nafarroa Etorbidea, 10 - 20110 Pasaia (GIPUZKOA) - Tel.: 943 341 035 - www.molde.eus

LIMPIEZAS  
GARBIKETAREN  
PROFESIONALAK  
Tel. 943 260 860



**GORA SAN FERMINAK!**

Info@limpiezastxindoki.com  
https://www.limpiezastxindoki.com/  
Txatzamendi kafea 43, 110 poligonoa, Lezo

PASAI - LEZO  
**LIZEOA** Herriko jaietan ere euskara ahoan



## EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda



Modus Operandi

## KONTZERTU HANDIA, GURE ZUMARDIAN

**MUSIKA.** Topaguneak eta Papineko Gazteriak antolatutako egitaraueri esker zuzeneko musikarekin aritzen diren taldeen eskaintzarik ez da falta sanferminetan. Aurten, aspaldiko partez, dantzaldi izaerakoa ez den talde entzutetsu bat izango da Antxoko festetan: Modus Operandi. Haien emanaldia igandean izango da, Gure Zumardiko oholtza nagusian, 00:00etan hasita.



Ricardo Albin

## BURRUNBARIK EZ DA FALTAKO

**DANBORRADAK.** Hiru danborrada herriko, eta beste bat Berrako adinekoen egoitzara bihar (larunbata). Horiek sanferminetako burrunbak. Lehena denboran helduena izango da, gaurko gauerdian aterako delako. Hurrena, bihar (20:30), Basari elkarteara. Azkena, haurrena (irudian): San Femen Eguneko arratsaldea girotuko du (17:30).



Ricardo Albin



**Ongi pasa Sanferminak!**

Axular Plaza, 3. Pasai Antxo  
Tel.: 943 34 05 42

## AGUR ESATEKO ERE, FESTA

**'GAIXOA NI'.** Astelehen gauerdian bukatuko dira 2024ko Antxoko festak. Jaiei agur esaten ere jakin behar da. Horretarako eskarmentua badute barrutian, zezensuzkoaren ondoren (irudian) Gaixoa ni abes-tera jartzen direlako plaza nagusian. Pena izaten da nagusi, baina antxotarrek ondo dakite 2025ean ere festa zuri-gorriak ez duela hutsik egingo. Hori bai: haur guztiak blai eginga iristen dira etxera.



**ERASO SEXISTARIK, EZ ERASO LGTBFORIK!**


